

GUGGENHEIM BILBAO

ARTE-IKASTAROA ONLINE

Arte garaikidearen egiturak: betiko galdera, obrak eta haien esanahiak nola sortzen diren.

SARRERA

Ikastaro honetan, artearen esanahiari buruzko hezkuntza-ekintza introspektiboa proposatzen da, Guggenheim Bilbao Museoaren Bilduma Propioaren eta erakusketa-programazioaren alderdi ezberdinetan oinarritutako lau kapituluren bitartez.

Proposamen honen abiapuntua da artearen behin betiko uneak nola esperientziatik eta elkarrizketatik sortzen diren: artea azaltzen denean, artearen inguruan gogoeta egiten dugunean eta horretaz hitz egiten dugunean. Artea horrela ulertzen da, fikziotik eta obra baten aurrean ikusle gisa sortzen ditugun narrazioetatik igarotzen den kontzeptu moduan. Artearen esanahiari buruz galderak, interpelazioak egiten ditugu, eta horrek arrasto bat uzten du, “narrazio-sedimentu” bat, eta, horrela, gure ikusizko judizio kritikoa eratzen da.

Ikastaroan, arterako hurbilketa teorikoa egingo da, eta komentatuko diren obren sorreraren atzean egon daitezkeen sormen-jarraibideei buruzko gogoeta egingo da. Horrez gain, artearen teoriari buruzko kontzeptu klasikoak landuko dira modu didaktikoan, antzinako filosofiatik hasi eta modernitate eta posmodernitateeraino. Era horretan, ikusten dugunaren inguruan ulermen posiblea eskaintzen da, artelanek aurkezten dizkiguten galderen bitartez, eta egon daitezkeen esanahien horizontea arakatzen da. Eta hori guztia berdintasuna kontuan hartzen duen ikuspegi inklusiboaren bidez, ordezkaturako artisten jatorri- eta genero-aniztasunari erreparatuta.

Halaber, landuko diren beste gai batzuen artean, sormena non eta nola sortzen den, ekintza batean nola gauzatzen eta finkatzen den eta zer ikas dezakegun artean lantzen diren sormen-dinamiketarik izango ditugu. Orobat, Miguel Lopez-Remiro Forcadak sakon aztertutako autoreen kontzeptuetatik abiatzen diren posizio estetikoak aztertuko dira; tartean, David Antin, Elena Asins, Joel Meyerowitz edo Mark Rothko bezalako autoreak aurkitzen dira.

IKASTEKO HELBURUAK

Online ikastaro honek, besteak beste, ikasteko helburu hauek ditu:

GUGGENHEIM BILBAO

- Artistak sortzera eramaten dituen eragilea edo motibazioa zein den ezagutzera ematea, artelanak sorrarazten dituen prozesu sortzailearen (fisikoa eta mentala) garrantzia nabarmenduz.
- Artistek hainbat lengoia plastiko erabilia transmititzen dizkiguten istorio eta mezuen bidez, ikuslearengan hainbat aldarte, emozio eta erreakzio nola bilatzen eta/edo pizten dituzten aztertzea, arteari, zenbait kasutan, ongintzazko nolakotasuna emanez.
- Artista jakin batzuek beren begiradaren eta testuinguru historikoaren bidez historia idazteko edo berridazteko orduan duten konpromisoa eta artearen boterea agerian uztea.
- Arteak, garaikidetasuna ulertuaz, etorkizunerako aukerak nola sortzen dituen nabarmentzea.

EGITURA ETA MATERIALAK

Ikastaroa era honetan egituratu da:

- ✓ Ongietorri eta aurkezpenaren bideoa
- ✓ Gaikako 4 modulu (ibilbide), bakoitza honako hauek osatua:
 - 4 bideo-klase
 - Material gehigarriak, bibliografia, eta abar.
 - Testa (aukerazkoa)
- ✓ Ondorioak ateratzeko eta agurtzeko bideoa
- ✓ Inkesta

PROGRAMA

I. Modulua: Zergatik eta nola sortzen duten artistek

Modulu honetan, prozesu artistikoen definizioetan murgilduko gara; hau da, artistak sormen-baliabide ezberdinetatik nola jarduten duen. Artista eta sortzaile erreferenteen motibazioen eta produkzio-prozesuen adibide zehatzak erakutsiko ditugu, hautatutako obren introspektzio didaktikoaren bidez: non eta nola sortzen da sormena eta nola gauzatzen eta finkatzen da ekintza artistiko eta/edo sortzaile batean.

1. Bideoa. Artearen errezeta bat: Mark Rothkotik aurrerantz.
2. Bideoa: Errealitatea eta presentzia: Richard Serratik Cristina Iglesiasera.
3. Bideoa: *Is starting hard?* (Hasiera gogorra al da?). Sormen-hasiera Frank Gehrytik.
4. Bideoa. Artea plaza eta prozesu likido gisa: Fujiko Nakayatik Jenny Holzerrera.

II. Modulua. Artearen emozioak

Bigarren modulu honetan, arlo emozionala eta animoaren edo katarsiaren zirrara aurrez aurre aurkezten dituzten artisten eta obren adibideak jorratuko dira. Artea

GUGGENHEIM BILBAO

etxe bat izan daiteke; abegi onaren eta enpatiaren espazioa al da? Nola erantzuten die gure aldarteak artelanei? Ildo horretan, New Yorkeko Eskolaren espirtualtasun irrikatuak ikuslearengan sortzen duen efektu baltsamikoaz hitz egin daiteke; edo Louise Bourgeois artistarena bezalako proiektuetan nabarmentzen diren orainaz eta zaintzaz; Richard Serraren edo Juan Muñozen lanean dagoen tentsio narratiboaz, guregana bira ematen duenaz; Yves de Klein bezalako artistengan hedatutako ekintza piktorikoaz; Cy Twomblyren artea definitzen duten alderdi kriptografikoaz eta inertziaz; edo Antoni Miro bezalako figuretan oinarritzekoak diren elementu sentikor eta materialez.

1. Bideoa: Artea etxea edo aterpe gisa: Louise Bourgeoisetik aurrera.
2. Bideoa: Prozesuaren intentsitatea: Willem de Kooningetik aurrera.
3. Bideoa: Inertzia, artista azitia bezala: Cy Twomblytik aurrera.
4. Bideoa: Edertasun konpulsioa, kolorea gai gisa, materialen aukera espresibo berriak: Joan Mirotik aurrera.

III. Modulua. Boterea, konpromisoa eta errealitatea

Artea hizkuntza da. Elkarrizketa-testuinguru batean sortzen da, eta artistek bizitako historiari eta haren bitartez ehuntzen dutela islatzen du. Modulu honetan, Oskar Kokoschkaren obra eta testuingurua ez ezik, New Yorkeko Eskola sortu zeneko esparru sozial eta historikoa ere jorratuko dira. Artean *establishment* berri bat sortuko da Bigarren Mundu Gerraren ondoren (The New American Painting), eta elkarrizketan jarriko da Europako abangoardiako figura giltzarriekin. Halaber, artea osasun publikoko gaiekin edo gatazkekin nola erlazionatzen den aztertuko dugu, Jenny Holzerren lana adibide moduan hartuta.

1. Bideoa: Artearen botere eraldatzailea: Paris-New York ondoren.
2. Bideoa: Katarsia, drama eta erreparazioa: Jenny Holzerretik Doris Salcedora.
3. Bideoa: "Mundua ez zen inoiz berdina izan Picasso edo Miro eta gero", Mark Rothko. Artistak iraganera begiratzen: tradizioa eta berrikuntza.
4. Bideoa: Artearen dimentsio sinbolikoa testuinguru publikoan: Mona Hatoum eta Itziar Okarizetik aurrera.

IV. Modulua. Artea etorkizuneko aukeren sortzaile bezala

Laugarren modulan honako hau jorratuko dugu: nola imajina dezakegu etorkizuna artistek beren obra, ekintza eta tresnetan aurkezten dizkiguten aukeretatik abiatuta. Lynette Yiadom-Boakyeren eta Oskar Kokoschkaren obrari erreparatuko diogu, eta Museoaren Bildumako pieza jakin batzuk ere aztertuko ditugu. Amaiera-modulu honen asmoa da arteak ulermenaren eta elkarrizketaren bidez etorkizuneko aukerak nola sortzen dituen ikustea, eta gure iritzi kritikoan, galderaren bidez, artearen egitura zerk eratzen duen jakitea.

1. Bideoa: Arte etorkizunerako entrenamendu-eremu gisa: Oskar Kokoschkatik aurrera.
2. Bideoa: Figurazio berri baten eklosioa eta artea etorkizuneko historia bezala: Lynette Yiadom-Boakye.
3. Bideoa: Keinua, erritmoa, denbora, gorputza: ikuslea obraren barruan.
4. Bideoa: Artearen egitura berriak espazio likido batean.